

ERLIEBEA ETA PAISAIA

1. Adierazi zuzenak ala okerrak diren honako esaldi hauek.

Erliebearen eraketa prozesu azkarra da.

Erliebea eta paisaia gauza bera dira.

Izaki bizidunek aldaketak eragiten dituzte erliebean.

Alde handia dago kostaldeko erliebearen eta barrualdeko erliebearen artean.

2. Aukeratu: zein da erliebea eta paisaiaren arteko desberdintasuna?

- ☐ Erliebea lurrazalak duen itxura da eta paisaia mantuak duen itxura.
- ☐ Erliebea lurrazalak orokorrean duen itxura da eta paisaia kanpoko prozesuek eraldatzen dutena.
- ☐ Erliebea lurrazalak duen itxura da eta paisaia leku konkretu batean duen itxura da.

3. Lotu hitz bakoitza bere definizioarekin.

Sumendia	Lurrazaleko materialak gastatzea.
Higadura	Materiala erliebearen beheko eremuetan metatzea.
Garraioa	Lurrazalean mugimendu azkar eta bortitzak.
Lurrikarak	Higadurak askatutako materialak beste leku batera eramatea.
Sedimentazioa	Barruko magma kanporatzea.

4. Sailkatu ondorengo elementuak barrualdeko edo kostaldeko paisaiakoak diren adieraziz.

Mendia - Mendikatea - Badia - Penintsula - Harana - Arroa - Lautada - Delta -
Uhartedia - Lurmuturra - Uhartea

Barrualdeko paisaia	Kostaldeko paisaia